

14AR
14AR

TEATRO

ELARA

BIDAIA BAT
IZARRETARA



FITXA ARTISTIKOA

Jatorrizko ideia Mar Mar Teatro

Leire Bilbaoren gidoi batean oinarritua

Zuzendaritza : José C. García eta Mar Mar Teatro

Dramaturgia : Mar Mar Teatro

Aktoreak: Amets Ibarra, Aritza Rodriguez, Maitane Serrano

Espazio eszenikoa: Javi Tirado

Musika: Unai Laso

Atrezzo eta Panpinak: Javi Tirado

Soinu espazioa: Igor Iglesias eta Antxon Unzaga

Argi diseinua: Maitane Serrano eta Igor Iglesias

Jantziak: Noemi Loiti

Produkzioa: Mar Mar Teatro



SINOPSISIA

Elarak goizegi ezagutuko du galera hitzaren esanahia. Bere gertuko bat izarren hauts bihurtuko da.

Planetak eta galaxiak zeharkatuz bidaia espazial bezain espeziala egingo du bizitzaren zentzua ulertu nahian. Horretarako doluaren faseak (eta desfaseak) zeharkatu behar baditu ere.



ISTORIOAREN NONDIK NORAKOAK

Bere amonak erabaki zuen gure protagonista den umeari, Elara izena jartzea. Elara, Zeusen maitaleetako bat da mitologia greko-erromatarrean. Jainkoen erregea Elarataz maitemindu eta konstelazio bilakatu zuen zeruan betiko bizi zedin.

Gure protagonistak ez daki zein den bere izenaren jatorria, eta egia esan, momentu honetan ez da interesatzen zaion zerbait. Jolastea, ikastea eta ongi pasatzea da bere helburua, beste haur guztiena bezala.

Elara bere **amonarekin hazi da**. Bere klaseko lagunek bezala, ordu asko pasatzen ditu aiton-amonekin, **gurasoen lana** dela eta. Amona du laguntzaile, lagun min eta konfiantzazko pertsona.

Un día su abuela no estará, echara de menos ver las estrellas junto a ella, jugar o viajar con la imaginación. Elara, hará un viaje en el que aprenderá a vivir sin aquella persona que nunca pensaría que se iría. Un viaje que todos tenemos que hacer en la vida, un **viaje a la aceptación**.

Egun batean, bere amama joan egingo da. Faltan botako du berarekin izarrak ikusi, jolastu eta irudimenarekin bidaiatzea. Elarak bidaia bat hasiko du, non inoiz alde egingo duela pentsatuko ez lukeen pertsonarik gabe bizitzen ikasi beharko duen.

Bidai bat, noizbait denok egingo duguna, **onarpenerako bidaia bat**.

“ELARA, bidaia bat izarretara”, **3 urtetik aurrerakoentzat** gomendatutako ikuskizuna da. **Galera alde pedagogikotik** landu nahi duen proiektu bat da. Galera pertsonal, material zein sentimentalaren inguruko lanketa bat.

Nagusiei egin nahi diegun omenaldi bat ere bada, gure seme-alaben zaindari nekaezinei. **Bizitzaren onarpen eta ikaskuntzarako bidaia bat**

HEZKUNTZA BALOREAK

Gure ikuskizunak prestatzerako orduan oso presente izan dugu beti antzerkiaren alde holistikoa, alegia, ikuslearentzat gozamenaz haratago ikaskuntza eta esperientzia iturri ere badela antzerkia.

Hortik dator pedagogiarekiko dugun sentsibiltatea, eta ildo horretan sakonduz, ondorengo puntuak azpimarratuko genituzke:

- Galerari aurre egin: Ikuskizunak pedagogiaren eta emozioen mundutik helduko dio galerari. Txikiek galera gainditzeko eta **hazkunde pertsonalerako lanabes eta bidelagun izatea** lortu nahiko genuke.
- Gure nagusiei omenaldia: Zergaitik amona? **Amonaren pertsonaia erabili dugu gure nagusiei omenaldi bat egiteko**, gu eta gure seme-alaben zaindari nekaezinei. Beti eman bait digute beraien, zaintza, jakinduria, maitasuna eta goxotasuna. Ume askorentzat haurtzaroko konplize eta babeslekua izateraino.
- Onarpena eta ikaskuntza: Elarak amonaren heriotza onartu eta honi aurre egiten ikasiko du, esperientzia hau baliagarri bihurtuz bere bizi-ikaskuntzarako. **Ez dugu inongo egia unibertsalik emango, bakoitzak gure erantzunak baititugu.** “Elara, bidaia bat izarretara” gonbidapen bat da era sentikor eta poetikoan, heriotzari buruz hausnartu eta norberaren emozio eta esperientziekin konektatzeko.
- Irudimena eta sormena: Haurren irudimena eta sormena sustatuko ditugu abentura eta pertsonaia fantastikoz beteriko bidaia espazial zein espezial honetan.

GALERIA



MAR MAR

TEATRO

Tfn: Igor Iglesias 655 717 248

Aritza Rodríguez 655 707 867

marmarteatro@gmail.com

